

6. LZPaK INGURUMENEAN ERAGIN DITZAKEEN AFEKTAZIOAK PREBENITZEKO NEURRIAK.

6.1. MAILA HIERARKIKO ALTUAGOKO PLANEN INPAKTUAK PREBENITZEKO ETA ZUZENTZEKO NEURRIAK.

Ingurune naturala kontserbatzeko berariazko helburua bete nahian, Eusko Jaurlaritzak hainbat lege onartu ditu (2.2 epigrafean adierazitakoak), eta lege horietan ezarrita daude babes-figurak eta ingurune naturala antolatzekeo tresna desberdinak. Zenbait kasutan, antolamendu fisikoa edo lurralde-antolamendua egiteko beste edozein tresnaren gainetik daude hierarkikoki, izan ere, horrela ziurtatuta geratzen da interes natural handieneko espazioen babesa, dibertsitateari eusteko eta garapen iraunkorrari laguntzeko funtsezkoak baitira.

Modu berean, espazio eta baliabide natural baliotsuenen kontserbazioa eta lurralde-garapena bateragarri egiteko bideak aurkitzeko, eta naturaren babesa eta biztanleriaren bizitzaren hobekuntza modu orekatsuan kontuan hartzen direla ziurtatzeko, LAAk idatzi ziren. Bertan daude barne hartuta adierazitako guztia lortzeko zehaztapenak, arauak, irizpideak eta jarraibideak.

Bestalde, maila hierarkiko baxuago batean, administrazioak hainbat katalogo eta Lurraldearen Arloko Plan batzuk landu ditu (itsasertzena, hezeguneena, nekazaritza eta basoena, ibaiertzak antolatzekeo, besteak beste), eta guztiek sakonago aztertzen dituzte ingurune naturaleko elementuak eta bertan babestu behar diren baliabideak.

Lege eta dokumentu horien artean LAAk dira maila gorena dutenak, lurralde-antolamenduarekin lotutakoen artean noski, eta administrazioak hiri-garapenean proposatu dituen lehenengo neurri prebentiboak eta babesle-kontserbatzaileak edo babesle-zuzentzaileak dira. Beste batzuk gai zehatzagoekin daude lotuta, hala nola poluzio atmosferikoa, isurketak, hondakinak, eta abarrekin, eta, kasu askotan, indarreango legerian egin diren Europako araudietako ekarpenak dira.

6.2 PLANAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK EGOKITZEKO PROPOSAMENA.

LZParen helburuak, 1.2 epigrafean jada aipatu direnak, eta jardun-estrategiak LAAen dokumentutik hartu dira. Gogoan hartu behar da, ildo horretan, EAEko lurralde-antolamenduko prozesuen ingurumen-ikuspegia Europako lurralde-estrategiarekin bateragarri egiteko landu zirela LAAk.

Bestalde, azterketa honetan eta, batez ere 2.2 eta 5.1 ataletan, garbi erakutsi den moduan, helburu horiek bat datoz erabat ingurumena babesteko lege orokorreko eta 2007-2010 Esparru Programako xede eta helburuekin. Gainera, garapen iraunkorraren printzipioak jarraituko dira helburu horiek lortzeko, beraz, **ez da aldaketarik egin beharko bat etortzeko.**

6.3. LKP-AREN INGURUMEN KOSTUA MURRIZTEKO NEURRIAK DEFINITZEA.

LKPko proposamen bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren maila zehaztu eta gero, kapitulu honetan hainbat neurri aurkezten dira, ahal den neurrian inpaktu horiek prebenitzeko.

Ingurumen-inpaktua prebenitu nahi bada, proiektua edo inguruneako esku-hartzeak aldatuko dituzten neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak ezarri behar dira nahitaez:

- Proiektuak ingurumenean duen eragina ekiditea, murriztea, aldatzea, berreskuratzea edo konpentsatzea.
- Proiektuak arrakasta izan dezan inguruneak eskaintzen dituen aukerak hobeto aprobetxatzea.

Proiektuko elementu edo prozesuren bat aldatu eta inpaktua agertzea ekiditen dutenak dira neurri **babesleak**.

Neurri **zuzentzaileak** dira inpaktuak inguruneak jasan dezakeen maila batera arte murrizteko aplikatzen diren neurriak.

Lehenagotik ezin diren edo halabeharrez gertatzen diren inpaktuen aurrean neurri **konpentsatzaileak** aplikatzen dira, inpaktu horiek zeinu positiboko beste batzuekin

konpentsatzeko. Inpaktu horien eraginak inpaktuaren izaera berekoak zein bestelakoak izan daitezke.

LZPak berak ondoren ikus daitekeen eskeman multzoka daitezkeen zenbait neurri proposatzen ditu:

a) Lurzoru ez-urbanizagarriaren kategorizazioa.

Neurri babeslea da berez, eta erreferentzia gisa balio dio garapen-plangintzari lurzoruaren erabilerak arautzeko, lurzoruaren harrera-ahalmena kontuan hartu eta lortu nahi den lurralde-ereduarekiko modu koherentean.

b) Babestu, hobetu eta/edo berreskuratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak.

Garrantzi bereziko hainbat esparru aukeratzen dira, baliotsuak direlako edo degradazio-maila kaxkarra dutelako edo gainjarritako baldintzatzaile bat dutelako, eta esparru horiek babestu, hobetu eta/edo leheneratu beharreko eremutzat jotzen dira. Era berean, Korridore Ekologikoen Sarearen diseinua barne hartu da.

c) Balio naturalistiko, paisajistiko eta zientifiko-kulturalaren babesarekin lotutako zenbait neurri, bai eta oro har ingurumena babesteko eta garapen iraunkorraren kontzeptua azpimarratzeko neurriak ere.

Azterketaren ikuspegitik, LZParen lurralde-eredua eta, berariaz, matrizean barne hartutako erabilera eta jardueren arautzea, babestu, hobetu eta berreskuratzeko eremuak eragiten ditu bereziki, eta gainjarritako baldintzatzaileek arindu edo minimizatu egiten dute beste jardun-proposamen batzuen inpaktu negatiboa, hain zuzen ere lurraldeko garrantzi handiagoko eremuak babestuta daudelako.

Aurretik aipatutako guztiez gain, dokumentu honetan ingurumen-faktoreen gainean izan daitezkeen afektazioekin lotutako hainbat teknika prebentibo eta neurri zuzentzaile eta konpentsatzaile barne hartzen dira, eta 5.2.2. epigrafean aztertu dira guztiak. Dokumentu honen izaera eta eskala kontuan hartua, neurri horietako zenbait generikoak eta behin-behinekoak dira jakina, eta kasuan kasu erabakiko da noiz eta nola barne hartu garapen-plangintzetan.

6.3.1. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak.

Inpaktuak identifikatzeko eta baloratzeko banakako fitxekin koherentzia gordetzeko, proposatutako neurriak bertan erabiltzen den terminologiaren arabera multzokatu dira eta, ondoren, bakoitzaren azalpena eman da, ingurumen-faktore desberdinak kontuan hartuta.

a) Neurriak, 5.2.2 epigrafeko fitxetan dagokien ingurumen-faktorearen arabera adierazitakoak.

Neurri babesleak

1. Baliabide naturalistikoak (habitat eta espezie basatiak):
 - Babes. 1.1. Habitat eta espezien babesari buruz indarrean dagoen araudia betetzea (espezie mehatxatuak kontserbatzeko leku edo habitat kritikoak eragin ditzaketen jardunak saihestea).
 - Babes. 1.2. Zuhaitz-masa autoktonoak kontserbatzea.
 - Babes. 1.3. Azaleko ubideak babesteko eremuak kontserbatzea.
2. Baliabide estetiko-kulturalak edo paisajistikoak (paisaia):
 - Babes. 2.1. Osaera naturalagatik bikainak diren paisaiak babesteko jardunak.
 - Babes. 2.2. Landa-paisaia babesteko eta jasaten duten giza esku-hartzea dela eta babestu beharreko paisaia baliotsuak kontserbatzeko jardunak.
 - Babes. 2.3. Mugarri eta berezitasun paisajistikoak, naturalak eta eraikitakoak, babesteko perimetroak mugatzea.
 - Babes. 2.4. Eraikuntzak egokitzeko diseinu-neurriak (formak, kromatismoa, bolumena).
 - Babes. 2.5. Hiri-garapenik gabeko zonaldeak babestea (garapenik gabeko korridorea).
3. Nekazaritza, arrantza eta basoko baliabideak:
 - Babes. 3.1. LZPak adierazitako gaitasun agrologiko handiko lurzoruak babestea.
 - Babes. 3.2. Lurraldean baso-eredu bat ezartzea. Baso-masak antolatzeke balioko du eta optimizazio-irizpideak jarraituko ditu, betiere dibertsitatea eta zuhaitzien iraupena ziurtatuz eta ingurune naturalarekiko errespetuzkoa den kudeaketa ahalbidetuz.

4. Geologia eta geomorfologia:

- Babes. 4.1. Lurzoruen erabileren plangintzan higaduraren baldintzatzailea kontuan hartzea. Landare-estaldura babestea eta kontserbatzea.
- Babes. 4.2. Ezaugarri geoteknikoen arabeko diseinu egoki bat, egokitzapen topografiko handia eginez eta segurtasun-neurri konstruktiboak hartuz.

5. Baliabide hidrikoak:

- Babes. 5.1. Ubideak babesteko eta akuiferoen birkarga egiteko eremuak eta lurzoruen maila freatikoaren mantentzea zaintzea. Ez da onartuko lurra ur poluitzaileak xurgatzea eragingo duen eta lur gaineko zein azpiko uren kalitatea arriskuan jartzen duen instalaziorik.
- Babes. 5.2. Higadura hidraulikoaren aurkako babes-neurriak hartzea.
- Babes. 5.3. Uraren eskaria eta hornikuntza orekatzea; horretarako baliabide hidrikoen arazoizko erabilera egingo da.

6. Poluzioa eta hondakinak

- Babes. 6.1. Poluzioa igortzen duten fokuak kontrolatzeko teknologia egokiak erabiltzea.
- Babes. 6.2. Garraioaren plangintza egitea eta trafikoa kudeatzea, honako irizpide hauek jarraituz:
 - Intermodalitatea oinarrian duen garraio-politika bat garatzea.
 - Trena garraio publikoko metodo bezala sustatzea.
 - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetuko dira.
 - Herriguneetan eta tokiko sarbide-sare primarioan oinezkoentzako igarobideak eta bizikletetarako bidegorri independenteak egitea.
 - Ibilgailu pribatuen trafikoa gutxitzea.
- Babes. 6.3. Poluitzaileak izan daitezkeen hondakin-urak zuzenean isurtzea debekatuko da.
- Babes. 6.4. Hondakinak prebenitzea eta minimizatzea jatorrian, teknologia egokien bitartez hondakinen sorrera eta kaltegarritasuna murriztuz.

7. Osasuna eta bizi-kalitatea:

- Babes. 7.1. Poluzio akustikoko foku igorlearekiko distantzia prebentibo bat gordetzea (errepideak, autobideak, industriaguneak, aisiaidikoak, eta abar).

8. Arrisku eratorriak:

- Babes. 8.1. Ibaiertzeta betetzea arautzea.

Esandako guztiaz gain, jardunei lotuta honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Eremu hauetan garatuko diren jardunak aztertzea: ziklo naturalen eta bizitza basatiaren gainean izan daitezkeen afektazioak kontuan hartuko dira.
- Espezie mehatxatuak kontserbatzeko leku edo habitat kritikoak eragin ditzaketen jardunak edo jarduerak saihestea; horretarako, erabilera- eta kudeaketa-araudi egoki bat prestatuko da.
- Unadak eta landaredia naturaleko elementu linealak kontserbatzea; arreta berezia jarriko da nekazaritza eta basoko paisaietan daudenen gainean.
- Faunaren joan-etorriak eragotziko dituzten oztopo artifizialak sortzea ekiditea.
- LZParen arabera, arloko administrazioak garatu beharreko azpiegiturei dagokienez, horiek kokatzeko eta diseinatzeko orduan hainbat aukera hartuko dira kontuan. Besteak beste, lurraldea kontserbatzeko balioen (ikuspegi ekologiko, produktibo, paisajistiko eta zientifiko-kulturaletik) gaineko esku-hartzea.

Neurri zuzentzaileak

1. Baliabide naturalistikoak (habitat eta espezie basatiak):
 - Zuz. 1.1. Intereseko habitat eta ibai-ibilguetan egiten diren aldaketak minimizatzea.
 - Zuz. 1.2. Flora eta fauna basatiko populazioei oztopoak jartzea eta horien isolamendua eragozteko neurriak.
 - Zuz. 1.3. Konektibitate naturaleko korridoreak ezartzea.
 - Zuz. 1.4. Landaredia leheneratzea espezie autoktonoak erabiliz.
2. Baliabide estetiko-kulturalak edo paisajistikoak (paisaia):
 - Zuz. 2.1. Azpiegitura linealak integratzeko neurriak.
 - Zuz. 2.2. Landare-pantailak eta oztopo bisualak ezartzea artefaktuak integratzeko.
 - Zuz. 2.3. Ezpondek eta lur-erauzketek eragindako eremuak espezie autoktonoekin leheneratzea.
 - Zuz. 2.4. Paisaian integratzeko arauak (ubideak, baso-inguruak, nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuak eta landazabala, hiri inguruko eremuak).
3. Nekazaritza, arrantza eta basoko baliabideak:
 - Zuz. 3.1. Kontzentrazio partzelarioa.
 - Zuz. 3.2. Bide-zortasun, pasabide eta landa-bideak leheneratzea.
 - Zuz. 3.3. Eragindako lurzatien ustiapen-baldintzak hobetzea.
 - Zuz. 3.4. Lur-erauzketetako lur begetalak berreskuratzea eta aprobetxatzea.
 - Zuz. 3.5. Landa-lurra kudeatzeko erakundeak ezartzea.
4. Geologia eta geomorfologia:
 - Zuz. 4.1. Lur-mugimenduak minimizatzea.
 - Zuz. 4.2. Ezpondak eta lur-erauzketak espezie autoktonoekin leheneratzea.
5. Baliabide hidrikoak:
 - Zuz. 5.1. Ur-ziklo, ur-fluxu, drainadura, eta abarrekiko interferentziak minimizatzea.
 - Zuz. 5.2. UPPIko neurriekiko neurri osagarriak.
 - Zuz. 5.3. Noizean behinka defentsak, bideratzea, eta abar egitea, betiere ingeniari-tza biologikoko teknikari lehentasuna emanez.

6. Poluzioa eta zaratak.

- Zuz. 6.1. Estandarrak aplikatzea, gas, ke, zarata eta beste poluitzaile batzuk eta ibilgailu eta industrietako mota orotako partikulak isurtzeagatiko ingurumen-inpaktua kontrolatzeko.
- Zuz. 6.2. Errepide eta autobide nagusietan oztopo akustikoak sortzea.
- Zuz. 6.3. Ibilgailuen trafikoa kontrolatzea eta bide-zoru ez hain zaratatsuak erabiltzea.
- Zuz. 6.4. Hondakinak birziklatzea eta berriro erabiltzea.

7. Osasuna eta bizi-kalitatea:

- Zuz. 7.1. Ibilgailuen isilgailuen gaineko kontrola.
- Zuz. 7.2. Foku igorlearen isolamendu akustikoa hobetzea (industria-nabeak eta aisialdirako eremuak).
- Zuz. 7.3. Etxebizitzen isolamendu akustikoa hobetzea.

8. Arrisku eratorriak:

- Zuz. 5.1. Arriskuak murrizteko planak, neurriak eta estrategiak egitea.

Adierazitakoaz gain, LZPko proposamenetan barne hartutako azpiegiturei, arloko sailek garatutakoei, dagokienez, ezin dugu ahaztu lehentasuna eman beha zaiola azpiegitura-ezarpenen arrazionalizazioari. Horretarako, zerbitzuak lurraldean integratzeko eta optimizatzeko estrategiak garatuko dira, kanal, sare eta zerbitzuak kontzentratuko dira eta afektazioen ekonomia zaindu eta ingurune fisikora egokitutako diseinu kualifikatuak egingo dira.

Honakoak LZPan barne hartutako neurri konpentsatzaile garrantzitsuenak:

Neurri konpentsatzaileak:

1. Habitat eta espezie basatiak:
 - Kon. 1.1.Neurri konpentsatzaileak garatzea basa-bizitza kontserbatzeko eremu berriak sortzeko.
2. Paisaia:
 - Kon. 2.1.Nekazaritza-azalera erabilgarriari eustea, eta baserria laguntzea, euskal paisaiaren osagai garrantzitsua baita.
 - Kon. 2.2.Inguruko beste inpaktu estetiko-paisajistiko batzuk zuzentzeko neurri konpentsatzaileak ezartzea.
3. Nekazaritza, abeltzaintza eta basoko jarduerak:
 - Kon. 3.1.Nekazaritza-arloko egitura-baldintzak hobetzera zuzendutako neurriak.
 - Kon. 3.2.Ordezko lurretan lekuz aldatutako ustiapenak berriro ezartzea.
 - Kon. 3.3.Lurzoru-galera jasaten duten nekazaritza-ustiapenetarako neurri konpentsatzaileak ezartzea.
 - Kon. 3.4.Nekazaritza-herrixkak sortzea.
 - Kon. 3.5.Bazterreko lurrei balioa emateko aukera, jardunen ondoriozko lur-mugimenduak aprobetxatuz.
4. Baliabide hidrikoak:
 - Kon. 4.1.Ibilguak hobetzeko planei ekitea, galeria-basoen berezko sailen bitartez.
5. Poluzioa eta hondakinak:
 - Kon. 5.1. Ekonomia-tresnak erabiltzea, hala nola zergak, tarifak, eta abar.

b) LZPak proposatutako jardunak kokatzen diren lurzoruetako ingurumen-balio eta – baldintzatzaileekin lotutako neurriak.

LZPak proposatutako jardunak kokatzen diren lurzoruetako ingurumen-balio eta – baldintzatzaileekin lotuta aipatu diren neurriak, orain hasten den epigrafe honetan azalduko ditugunak, plangintzaren barruan barne hartuko dira, kasuan kasuko idazketa-fasean eta, edozein modutan, kontuan hartuko dira udalaren garapen-plangintza lantzean, horrela lortuko baita etorkizuneko antolamendua definitzean aintzat hartzea.

Honako neurri hauek aipatu dira:

Ingurumenaren ikuspegitik kalteberak diren inguruak.

Lazkaoko udalerrian, Agauntzaren ezkerreko ibaiertzean, lurzoruak mugatuko eta erreserbatuko dira –Beasaingo udalerrian berriki kalifikatu eta IIBE azterketaren xede izan diren lurzoruekin unitate bat osatzen da- eta, kasu horretan, Ibaiertzak antolatzekeo LAPeko araudia errespetatzeaz gain, lehenengoen kokapena dela eta ezar daitekeen beste edozein araudi errespetatuko da.

Ibai-bideak eta ibaiertzak.

Ibai-bideak barne hartzen dituzte bizitegi eta ekonomia-jardueretarako garapen berriak kokatzeko lurzoruak mugatu eta erreserbatzeko jardunek, bai eta bide-azpiegiturekin erlazionatutakoek ere.

Jabari publiko hidraulikoa eragiten duten LZPak aurreikusitako jardunak eta proposatutako garapen-plangintza aurrera eramateko, ibai-bideen baldintza naturalei eusteak duen garrantzia azpimarratuko da. Horrela, beraz, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzekeo LAPean ezarritako distantziak errespetatuko dira eta ibai-ibilguetako oheak kontserbatu eta erriberako landaredia kontserbatu eta hobetzea bilatuko da.

Baldintzatzaile hidraulikoek bideratze- eta babes-obrak egiteko beharra adierazten badute, obra horiek egitean ingeniari-tza biologikoko tekniken erabilera lehenetsiko da, eta erriberako landarediaren gaineko afektazioak minimizatuko dira.

Garapen berriko eremuetan, edo eraldaketa- eta leheneratze-prozesuak jasaten dituztenetan, ibai-bideek zeregin oso garrantzitsua betetzen dute, ikuspegi ekologikotik eta paisajistikotik. Eremu horietan, LZP dokumentuan adierazten den moduan, ibai-ibilguek espazio horiek birkualifikatzeko elementu gisa duten potentzialtasuna baliatuko da; lurraldea konektatzeko duten ahalmena probestu eta ibaiertzak erabilera publikoko pasealeku zuhaitzu bihurtuko dira.

Erriberako landaredia.

Erriberako landarediaren (haltzadia) orbanak dauden eremuetan, isolatuta egonik ere, eremuaren antolamenduan barne hartu aurretik, orbanak babestea eta leheneratzea komeni da, garrantzi handiko eginkizun ekologikoa dutelako eta garrantzi handia dutelako ibaiertzak higaduraren aurrean babesteko eta egonkortzeko. Horrela jokatzeko ezinezkoa bada, neurri konpentsatzaileak ezarriko direla ziurtatuko da plangintzatik. Zentzu horretan, kasu kasuko udalak definituko dituen "leheneratzeko" landaredia duten ibai-zatietan aipaturako erkidegoari dagozkion espezie propioak landatuko dira ingurua leheneratzeko.

Baso autoktonoak babesteko neurriak.

LZPko jardun guztiei dagokie horrelako formazioak errespetatzea, baina proposamen batzuk, bide-azpiegiturekin erlazionaturakoak adibidez, eragin egiten dituzte puntualki, orban txikiekin.

Neurri prebentibo gisa, proposamenak ekarritako aldaketa dagokion eskalaren arabera aztertuko da berriro; baina ezinezkoa bada, eremua landarediaz leheneratzeko erabiliko da. Azkenik, hori egitea ere ezinezkoa bada, beste eremu bat landarediaz leheneratzeari ekingo zaio.

Zatiketa ekologikoa eta mugikortasun faunistikoa.

LZPko proposamenek ez dute eragiten edo oztopatzen EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen definizioa, baina, kontuan hartu behar da, LZPak bide-azpiegitura edo garapen berriekin erlazioan egiten dituen proposamenek, bizitegi zein ekonomia-jardueretarakoek, haranen barrualdeko lurrak pixkanaka betetzea eragiten dutela eta zati batzuk iragazgaizteko arriskua areagotzen dutela.

Horrek dakarren inpaktua prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko, LZPak hainbat neurri proposatzen ditu, hala nola eskualde-mailako korridore-sare bat diseinatzea, garapenik gabeko korridoreak edo hiri-etenak proposatzea, interes faunistikoko espazioen arteko konexioa errazteko adibidez, bai eta azpiegitura linealetan eta, batez ere bide- eta trenbide-azpiegiturretan, faunarentzako igarobideak sortzea ere.

Aipatutako neurri guztiez gain, azterketa honetan komenigarritzat jotzen da eremu batzuetan ibaien artean geratzen diren muinoak edo erdi-mendiko inguruak erabiltzea korridore-eginkizuna betetzeko, eta, xede horretarako, eremu horietan lurzorua ondu publikoa sortzea proposatzen da.

Modu berean, lehen aipatu dugun EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen Azterketan barne hartutako neurriak, LZParekin kontraesanek ez daudenak, barne hartuko dira.

Landazabal atlantikoa eta balio agrologiko handiko lurzoruak babesteko neurriak.

Landazabal atlantikoa habitat, nekazaritza-baliabide eta interes paisajistikoko eremu gisa babesteko beharra azpimarratu da eta zenbait neurri babesle landu dira garapen berrietarako proposatutako azalerak murrizteko. Xede horrekin, beharrak ondu ezagutu behar dira, eremu zaharkituak, degradatuak edo gutxiegi erabiltzen direnak leheneratuko dira, jada kalifikatuta dauden lurzoruak garatuko dira, eta abar.

Horrenbestez, eragindako eremuak minimizatu eta gero, nekazaritza-lurzoruaren baliabidea lurraldeko beste sektore batzuetan leheneratzeko zatiko neurri konpentsatzaileak ezartzea bakarrik falta da. Hori dela eta, balio agrologiko handiko lurzoruaren kontsumoa konpentsatzeko, Nekazaritza eta Basorako LAPean proposatutako nekazaritza-afektazioari buruzko protokoloan xede horrekin barne hartutako neurriak jarraituko dira.

Ingurunekeo zarata.

LZPak eraldaketa- eta leheneratze-lurzoru gisa sailkatzen dituenetan, bai eta garapen berriei dagozkienetan ere, kontuan hartuko da inguruko industria-jarduerak eta garraiobideek sortutako zarata, eta bertako biztanleei kalitate-maila altua ziurtatzeko konponbideak bilatuko dira. Zehazkiago esateko, 171/1985 Dekretuak, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen gainean aplikatzen diren arau tekniko orokorrak onartzen dituenak, ezarritako zarata-mailak hartuko dira kontuan.

Udal-mailako berariazko zaraten mapa lantzeko beharra azpimarratu da, igorle akustiko nagusiak (garraio-sareak eta industrialdeak) eta soinu-maila altuak jasaten dituen biztanleria identifikatzeko.

Era berean, udal-plangintzetan zarata eta bibrazioen emisioei buruzko ordenantza bat barne hartzea komeni da. Zentzu horretan, Eudel-ek landutako Ingurumenari buruzko Udal Ordenantzaren Eredua hartuko da erreferentzia moduan.

Lurzorua polui dezaketen jarduerak dauden lekuak.

LZPko proposamenen xede diren zenbait esparru "Polui dezaketen jarduerak dituzten lekuen inbentarioetan" daude sartuta; "IHOBE-Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak egindako lana da.

LZPko araudiko 6.5 artikulua dioenez, poluituta egon daitezkeen lurzoruak daudenez, lurzorua ondo ikertzea komeni da, aurreikusitako erabileraren arabera, beraren kalitatea ezagutzeko.

Hiri-eraldaketa eragiketetan, pertsonen eta ingurumen-sistemen gaineko arriskuen prebentzioa ziurtatzeko helburuarekin, udal-plangintzak "EAEn lurzorua poluitu dezaketen

jarduerak dituzten lekuen inbentarioan” barne hartutako lurzoruen arazoari aurre egiteko bere proposamena ondo zehaztu beharko du eta lurzoruen leheneratzea sustatzeko proposamenak egin.

Horrez gain, 1/2005 legearen, otsailaren 4koa eta lurzoruaren poluzioa prebenitzeko eta zuzentzeko denaren, arabera, xede ditugun esparruen Lurzoruaren Kalitatearen Aitorpena, kalifikazioaren aldaketa behin betiko onartu aurretik luzatu beharko da, betiere birkalifikazioaren sustatzaileak horretarako eskaera egin eta gero. Halaber, kontuan hartuko da aipatutako legearen II. Eranskina, “Lurzorua polui dezaketen jarduerak eta instalazioak” izenekoa.

Inguru higagarriak babesteko neurriak.

Normalean LZPko jarduerak horrelako eremuak eragiten ez badituzte ere, bertan proposatutako bide-azpiegituren zenbait puntu aipatutako arriskua duten eremuekin nahasten dira.

Neurri prebentibo gisa, trazadura-aukera berriak edo zuzenketa txikiak proposatu dira, eta IIE bera lantzea. IIE proiektu-fasean aurkeztuko da eta bertan adierazi beharko dira erlazionatutako neurri zuzentzaileak.

Urpean geratzeko arriskua.

Eremu funtzionaleko LZPak urpean geratzeko arriskua duten esparruetarako proposamenak egiten ditu.

Urpean geratzeko arriskua duten eremuen mapa eguneratuetan barne hartutako eremuetan kokatzen diren garapen berrietan, inguruaren ebaluazioa egin eta barne hartuko da, eta bertan zehaztuko dira esku-hartzearen ondorioak eta indarrean dagoen araudia beteko dela ziurtatuko da.

Ingurunea eta paisaia leheneratzea.

Leku Paisajistiko Baliotsuak Babesteko Plan bat eta Paisaia Leheneratzeko Plan bat idazteko beharrarekin lotutako ekintza positiboko neurriak edozein izanik, azterketa honen proposamena da garapen-plangintzan Ingurunea eta Paisaia Leheneratzeko Proiektu bat barne hartzea, LZPko proposamenen ondoriozko obrek eragiten dituzten eremu guztietarako.

6.3.2. Udal-plangintzarako irizpideak, garapen berrien ingurumen-programazioarekin eta –ebaluazioarekin lotuta.

Udal-plangintzarako ingurumen-iraunkortasunaren irizpideak kontuan hartuko dira garapen-plangintzaren fasean bereziki, horrela ziurtatuko baita etorkizuneko antolamenduetan kontuan hartuko direla eta eragina edukiko dutela.

- Eskuarki, lurzoruen kontsumoa baxuagoa izatea (dentsitate ertainak/altuak), azpiegitura berriak errentagarri egitea eta dentsifikazio handieneko udalerrietan garraio kolektiboa bideragarri egitea erraztuko duten hiri-ereduak sustatuko dira.
- Esku hartzeko politikari dagokionez, lehentasuna eman zaie iraunkortasun-irizpidea oinarrian hartuta ingurumen-hobekuntzak dakartzaten jardun-lerroei.
 - Birgaitze-eragiketak.
 - Berrikuntza- eta eraldaketa-eragiketak
 - Inguru degradatuak berreskuratzeko eta leheneratzeko eragiketak.
- Zona berdeei dagokienez, espazio irekien sistema koherente bat ezarriko da, izan ere, funtsezkoa da egitura edo sistema bat sortzea, eremuen artean eta eremuen eta eremu babestuen artean jarraikortasun ekologikoa lortzeko. Xede horretarako, eremuen baldintza bioklimatikoetara egokitutako espezie autoktonoak erabiliko dira.
- Udal-mailan ibai-ibilguen leheneratze naturala egiteko planak sustatuko dira, eta ingurunea eta paisaia leheneratzeko planak ere bai. Era berean, inguru degradatuak hobetzeko eta leheneratzeko planak sustatuko dira (zabortegiak, hondakindegia, lurzoru poluituak, eta abar).

- Baliabideen kontsumoari eta hondakinen kudeaketari dagokienez:

Eraikinen eraginkortasun energetikoak pizgarriak izango ditu, bai eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemen erabilerak ere.

Garapen berriko eremuen urbanizazioetan, espazio publikoetan kontsumo baxuko argiztapenaren erabilera indartuko da, bai eta zerua argiztatzea eragozten duten eta gaueko argi-poluzioa murrizten duten sistemena ere.

Uraren kontsumo eraginkorra sustatuko da eta, horretarako, eraikin berrietan aurrezpen-sistemak jarriko dira eta kaleak eta lorategiak ureztatzeko sistemetan berrerabiliko da.

Hiri- eta industria-hondakinen birziklapena eta berrerabilera sustatuko da, betiere horiek uzteko eta tratatzeko altzari eta instalazio egokiak ziurtatuz.

Eraikuntzako beste iraunkortasun-irizpide batzuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako "Etxebizitzak egiteko eraikuntza iraunkorrerako gida" hartu da kontuan.

Bestalde, udal-plangintzetan, edo LZPko beste edozein garapen-plangintza batean, aurreko epigrafeetan adierazitako neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak barne hartuko dira. Aipatutako neurri guztiak barne hartu beharko dituzte garapen-plangintzek. Edozein kasutan, azterketa zehatzago baten ondorioz, proposatu diren neurriak aldatzea gerta daiteke, eta aldaketak egingo dira, betiere aldaketa justifikatzen eta aholkatzen duen eskala zehatzago batean egindako azterketak eskatzen badu.